

Prest!



BERBETAN: **AINARA HELGUERA** INTERPRETAZIO IKASLEA ETA TIKTOKERRA

ERREPORTAJEA: **EZTABAIDA KOMUNITARIORAKO MAITASUN-LUBAKIA**

BARKUA: **EZ DA KASUALITATEA**

9-260-261-262-263



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Nerea Cubillo Urkizu - Itsaso Larramendi Elexgaray		Iritzia	4
	Uxue García		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea EZTABAIDA KOMUNITARIOAKO MAITASUN-LUBAKIA			6
	<p><i>2023ko abuztuan abiatu zuten Trinchera Ediciones Patas eta Ivan San Inazioztarrek. Lagunen testuak eta eurei irakurtzea gustatuko litzaizkiekeen lanak editatzen eta publikatzen dituzte, mimo eta maitasun handiz. Argitaletxearen inguruan, liburugintza independentearen gainean eta aurkeztu berri dituzten azken lanei buruz aritu dira PREST! aldizkariarekin.</i></p>			
	Deustuko Eskola		Eskolak	10
	1925eko urtarrilaren 1a, gure historia aldatu zen eguna		Behin batean	12
	Euskararen Eguna		Artikulua	14
b	berbetan AINARA HELGUERArekin			16
	<p><i>23 urte ditu Ainara Helguerak. San Inaziokoa da eta Euskal Herriko Zinema Eskolan interpretazioa ikasten ari da. Bere ikuspegi originala euskarazko edukien bitartez uztartzeak sare sozialetan, bereziki Tik Token, lekua egin dio. Umorez hitz egingo digu Ainarak bere ibilbideaz, sare sozialek dakartzaten esperientziak eta horietan euskarak behar duen presentziak.</i></p>			
	Deustuk ez du anexioa nahi (1927)		Irudiak berbetan	21
	KULTURA Euskaraz barre egiterik dago?			24
	SAREKADA Erriberako iraganetik argazki bidaia. Anxiotik 100 urte			
	BARKUA BETE BERBA Noizbait kasualitate izan dadin			
	KULTUR TXOTX Jon Intxaurrea eta Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia			



**barkua
bete
berba**

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Katalin Gaztelu

Erredakzioa: Katalin Gaztelu, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrea
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Katalin Gaztelu

Diseinua: B05T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Nerea Cubillo Urkizu
Zergatik onartu ezarri dutena?

Ez zara Deustukoa baldin eta...

Hautsak harrotu ditu ustez auzoan zabalduko duten adin txikiko etorkinentzako harreragune berriaren argitalpenak 7000 erabiltzailetik gora batzen dituen Facebookeko 'Tu no eres de Deusto si...' taldean. Hala dio mezuak: "Quieren abrir un centro de recogida de menas? Tu piso valdrá una mierda!". Hamaika ikusteko eta irakurtzeko jaioak gara, zalantzarik gabe.


Argitalpena mezu arrazistaz eta gorroto mezuez bete da jarraian, denek pentsatzen dute ustezko harreraguneak ez duela lekurik auzoan, ez auzoan ez inon ziurrenik. "Falta zena!" dio batek, holako espazioek auzoan narriatzen dutela uste du besteak. Gutxi batzuek "zerbait egiteko" beharra aipatu dute -batek daki zer-, gehienek segurtasunaren aitzakipean pertsona migratu eta arrazializatuak baztertzeko

hamaika aitzaki bilatzen dituzten bitartean.

Elkartasunerako eta elkarbizitzarako mezu bat ere ez duzue topatuko "Tu no eres de Deusto si..." taldean, gorroto eta diskriminazio mezuak zalantzan jarri dituenik. Auzoko narriadurarekin kezkatuta dauden horiek dira hain zuzen ere, beldurra, tentsioa eta haserrea areagotuz auzoan pikutara eramaten ari direnak. Fokua norabide okerrera begira daukazue.



Itsaso Larramendi Elexgaray
Hiriaz eta beste



Kea diario

Ilunetan, Nerbioiko uren beste aldera begiratzean, tximinia bat ikus daiteke oraindik zerura kea dariola. Sader fabrikaren tximinia da, desindustrializazioaren paisaia periferikoan aktibo dirauen lantegi bakanetarikoarena. Ugariak izan dira aurten fabrika lekualdatzearen aldeko aldarriak, eta baita hurbil bizi garenok jasaten dugun kontaminazioaren salaketak ere.

Nola aitortu, baina, maite dudala tximinia horrek gauaren ilunean sortzen duen paisaia, bere kea toxikoa dela bada-kidan arren. Baltasmo bat zaidala, hunkitzen nauela, eder deritzodala. Ziurrenik, halako fetitxe nostalgiko bat da nirea; agian, hiri honetan kendu egin digutelako iragan industrialaren herentzia oro. Azaroa bukaeran eraitsi digute azkena: Pedro

Ispizuaren Tarabusi eraikina bota dute babestu eta birgaitzeko ardura zutenek. Erriberarako diseinatutako Master Planean auzotarrek eta ondare industrialaren babeserako elkarteek legalki blindatzea lortu zutena, arrazoi teknikoaren aitzakiapean desegin du Udalak.

Soberan dut titanioaren distira eta faltan gure iragan industrialaren aitortza. Eta aldi berean badakit ez daukagun hori izaten dela sarri desio duguna, nostalgia naif moduko bat agian, desagertzear dagoenari heltzeko saiakera desesperatua.



Uxue García

Adina: 20 urte

Jatorria: Deustuarra

Bizitokia: Buenos Aires (Argentina)

Lanbidea: ikaslea



Erasmusak eraman zintuen Argentinara. Zergatik aukeratu zenuen Argentina zehazki? Bazeneukan beste aukerarik?

Erasmus a egiteko aukera asko nintuen, Europan zein Europatik kanpo. Erasmus a egiteko aukera eman zidaten egunean, argi nuen Europatik kanpo joango nintzela eta, gainera, futboleant jokatze ko aukera izango nuen herrialde batera. Txikitatik amestu izan dut Argentinara joatearekin, eta bertan jokatze ko aukera nuela ikusita, ez nuen birritan pentasatu.

Dagoeneko denbora daramazu han. Nolakoa da hango bizimodua? Zerk desberdintzen du zure bizitokitik gehien bat?

Hemen bizimodua oso ezberdina da baina aldi berean zoragarria. Argentinako jendea oso hurbila eta atsegina da, eta lehen egunetik etxean bezala sentiarazten zaituzte. Gainera, hemen gauzak lasaiago hartzen dituzte; bizimoduaren erritmoa Bilbokoarekin alderatuta lasaiagoa da eta hori asko nabaritzen da.

Nire ustez, desberdintasun handienak janaria eta kultura dira. Adibidez, hemen matea hartzea erritual moduko bat da, eta familiarekin edo lagunekin partekatze ko une garrantzitsua bihurtzen da. Bestalde, futbolak sekulako pasioak pizten ditu hemen.

Erasmus a Argentinan egitea gomendatuko zenioke norbaiti? Zergatik?

Bai, gomendatuko nuke Argentinara joatea. Oro har, argentinarrak oso jende sozial eta hurbilekoak dira, eta lehen egunetik etxean bezala sentiarazten zaituzte. Bestalde, Buenos Aires hiriaz gain, bisitatze ko hiri harrigarriak daude.

Bertara bisitan, oporretan edo zure antzera erasmus a egitera doan norbaiti zer gomendatuko zenioke?

Buenos Airesera joaten denari Boca taldearen futbol partida bat ikustea gomendatuko nioke; futbola gustatzen ez bazaizu ere, hemen futbola nola bizi duten ikustea zoragarria da. Bestalde, jakina, asado argentinarrak bat jatea ezinbestekoa da.

Argentinan bidaiatzeko aukera baduzu, ni pertsonalki gehien harritu ninduen Patagonia izan zen: Ushuaia eta Perito Moreno glaziarra. Eta hondartza eta mendiko oporraldi bat nahi baduzu, zalantzarik gabe, Bariloche.

Jakin badakigu futbolaria zarela. Han zauden bitartean jarraitu duzu jolasten?

Bai, argi nuen futboleant jokatze ko aukerarik izango ez banu ez nuela erasmus a onartuko. Buenos Aireseko unibertsitatean onartu nindutenean, nazioarteko harremanekin harremanetan jarri nintzen futboleant jokatze ko aukera izan nezan. UAI Urquiza taldeko entrenatzaileak,

Argentinako lehen mailako talde bat denak, futboleant jokatzen ari nintzen bideoak eskatu zizkidan, eta nire egonaldian haiekin entrenatzeko aukera ematea hitz eman zuen. Hemen daramatzadan 4 hilabeteetan, asteko 5 egunetan entrenatzen dut. Denbora gehiago gelditze ko aukera eskaini didate, baina uste dut etxera itzuliko naizela, Deustura.

Zer da gehien botatzen duzuna faltan?

Zorte handia izan dut, nire gurasoak bi astetarako etorri baitziren bisitan, baina gehien faltan botatzen dudana nire gurasoak, neba eta lagunak dira. Gurasoek prestatzen duten janaria ere faltan botatzen da...

Gabonak heltze ar dira, baduzu bueltatzeko asmorik? Hala ez bada, gogorra egingo zaizu gabonak familiakoengandik urrun pasatzea?

Gogorra izango da familia gabe gabonak pasatzea, afariaren aurreko poteoa lagunekin ez egitea...

Hasieran, Gabonetarako itzultze ko asmoa nuen, baina erasmus eko ki-deekin Rio de Janeiroko urte zahar gaua ospatzeko aukera daukat, eta hori ere bizitzan behin gertatzen den esperientzia da.



EZTABAIDA KOMUNITARIORAKO MAITASUN-LUBAKIA

2023ko abuztuan abiatu zuten Trinchera Ediciones Patas eta Ivan San Inazioztarrek. Lagunen testuak eta eurei inakurtzea gustatuko litzaizkiekeen lanak editatzen eta publikatzen dituzte, mimo eta maitasun handiz. Argitaletxearen inguruan, liburugintza independentearen gainean eta aurkeztu berri dituzten azken lanei buruz aritu dira PREST! aldizkariarekin.

Testua eta argazkiak: Jone gartzia Gerra

Lagun artean jaio zen Trinchera argitaletxea sortzeko gogo, eta adiskidetasun giroan eman ditu lehen urratsak. San Inazioko bi auzokide daude proiektuaren atzean, Patas eta Ivan; auzoko jaietan erabaki zuten editoriala martxan jartzea, buruan zuten ideari bide ematea. Lagunen lanak kaleratzeko eta haiek irakurri nahiko lituzketen testuak editatu ahal izateko egin zuten, eta da-goeneko argia ikusi dute horietako lauk.

Hurrengo irakur daiteke liburuon azal-hegalean: “Gure ustez, liburuak eta ideiak ere lubakiak dira. Lurrean zulatutako zangak, babeslekuak, elkarrekin eztabaidatzeko eta hausnartzeko komu-

nikazio bideak eraikitzeko pitzadurak. Partekatu, aurkitu, eztabaidatu, hausnartu”. Politikoki bat egiten duten eta etxe bat bilatzen duten testuak lantzen dituzte edizio independentearen bidez. “Espazio literario eta politiko bat okupatu nahi dugu”, erantsi du Ivanek.

Arineketan eta liburugintzan apenas ezagutzarik gabe eman zuten lehen lana, Itxi Guerraren *Ruptura y reparación de la máquina. Escritos desde un cuerpo lisiado* (2023). Uztailean, auzoko jaietako Sani Rock jaialdian erabaki zuten buruan bueltaka zuten proiektua hezurmamitzea. Handik aste batzuetara bazuten Guerra-



ren zirriborrea eskuartean eta hilabete eska-sean kalean zen eskuz esku. Azkar batean egin zituzten edizio eta maketazio lanak eta inprentara bidali zuten, artean editoriala legez eta formalki osatu gabe zegoela.

“Ostean osatu genuen elkarte, ogasunera joan ginen, fakturak egiten ikasi genuen, hiru hileko aitortpenak... atzetik aurrera hasi ginen”, argitu du Patasek. “Gutziz berriak ginen gai honetan, ez genekien ezer honen inguruan eta arin batean ikasi genuen maketatzen, liburuen azalak proposatzen... Dena izan da lan kamikazea”, gehitu Ivanek.



Ibilbide laburrean anitz

Gogo eta ilusio betez egin dute orain arteko bidea, maitasun osoz. Dagoeneko lau lan argitaratu dituzte eta oso pozik daude emaitzarekin, irakurleen harrerarekin eta prozesu osoarekin. “Talde moduan oso ondo funtzionatzen dugu, oso harrera polita izaten ari gara, aurkezpen asko egin ditugu eta liburuak asko mugitzen ari dira”, pozez agertu da Patas. Euskal Herriko hainbat txokotan izan dira liburuak idazleekin batera aurkezten eta hainbat azoka autogestio-natutan ere egon dira: Durangoko Azoka Alternatiboan, Fakalagrapan —Karmelan egindako fanzine autoedizio eta kontrakultura azoka— eta Bilboko herri mugimenduaren azokan, Zirikako Herri Dendan.

2023ko abuztuan bidea hasi zutenetik lau lan argitaratu dituzte. Asmoa martxa berean jarraitzea da, hiri hilero lan bat kaleratzea.

Estilo guztietakoak lantzen dituzte: saiakera, poesia, eleberria eta saiakera poetikoa dira lehen lauak, eta eskuartean dituztenen artean daude lurraren askapenaren inguruko nera-beentzako ipuin bat, Kanno Sugakoren egunerokoaren itzulpena —Meiji enperadorea hiltzen saiatzeagatik Japonian heriotzara kondenatutako lehen emakumea—, eta maskulinitatearen inguruko zenbait autoreen proposamena, oraindik forma hartzen ari dena.



Horien artean bakarra izango da euskaraz, nerabeentzako ipuina, hain zuzen. Trincherako kideek aitortu dute zorra dutela euskararekin eta argitu dute aldatzeko asmoa dutela. Izan ere, politikoki Euskal Herrian kokatzen dute proiektua, eta jabetuta daude hori hala izanagatik ere gaztelaniaz eman dituztela ia lan guztiak.

Orain arte jorratu dituzten proposamenak idazleek eurek egin dizkiete, gutxi izan dira Patasek eta Ivanek idazleei planteatutakoak. Hala, testuren bat argitaratu nahi duen oro animatu dute ideiak beldurrik gabe bidal diezazkien. Patasek azpimarratu du lan-denbora geldoak dituztela, baina urtean lau lan publikatzeko asmoa dutela, ahal dela hiruhileko bakoitzeko bana. “Aurten azken hiruhilekoan hiru argitaratu ditugu, horrekin batez bestekoa bete dugu”, aitortu du barrez.

Lanean jarraitzeko gogotsu daudela gaineratu du: “Oso jende jatorrarekin egin dugu lan, oso esker onekoak... Indarra ematen digu horrelako jendearekin lan egiteak”. Ivanek ideia lantzen hasten direnetik lana argitaratuta ikusten duten arteko prozesuaren ilusioan jarri du azpimarra: “Oso dinamika polita dugu gure artean, aurre prestaketa lanak oso gustagarriak dira, lanak publikatuta ikustea ere, gero hitzaldiak ematea... eta horrela hilabeteak arin batean pasatzen zaizkigu”.

Liburugintza independentea

Ibilbide osoan zehar inguruko beste editorial eta liburu-denda alternatiboekin harremanetan egon badira ere, Bilboko DDTrekin kasu, susmoa dute oraindik ere zabalagoa den eta ezezagun zaien zirkuitu independente eta alternatibo handia dagoela. “Pentsatzen duguna baino gehiago daudela uste dut, eta sare bat egon badagoela, gu oraindik sartu ez garena. Ez dago oso argi, zenbait ate jo nahi ditugu”, argitu du Patasek.

Ivanen hitzetan, askotariko editorial alternatiboak daude. Esaterako, Bilbon Bala arte liburu azokak hamarkada baino gehiago darama martxan, eta bertan autoedizioa eta edizio independentea lantzen duen jende asko biltzen da: “Plano artistikoagoan egiten dute lan, baina inguruan badaude politikoki diskurtso markatuagoa duten hainbat editorial”. Horiek ezagutzeko eta sarea ehuntzen hasteko editorial alternatibo eta autogestio-natuen inguruko jardunaldi batzuk antolatzeke asmoa dute.

Argitaletxe independenteak eta merkatu zein zirkuitu ofizialetatik kanpo daudenak asko dira. Trincherak argitara eman dituen idazleen lanek bestelako editorialetan publikatzeko zailtasunak izango lituzketen gal-detuta, bi kideek erantzun dute ezetz. Itxi Guerrak eta Olga Blázquezek, esaterako, aurretik beste etxe batzuekin argitaratu izan

dituzte lanak eta erraztasuna dute editorialhandiagoekin lan egiteko. Eneko Bustamantarentzako eta Kristina Pozorentzako lehen aukera izan zen Trincheraren atea jotzea.

“Uste dut gertutasunagatik eta jatorrak garelako egin dutela”, azaldu du Patasek, eta Ivanek gaineratu: “Esango nuke berotasun eta ezagutza kontu bat izan dela, gurekin probatzeko gogoia zuten, gertuko jendea eta jatorrak garelako”. Hala, samurtasunez eta goxotasunez jarraituko dute Trincheraren bereizgarri den maitasun zigilua zabaltzen liburuen bitartez.



Danza de los cuerpos indomables

Eneko Bustamante Díaz

Furgoneta batean espezie arteko familiarekin bizi den nomada baten poema liburua. Pertsonen artean zein naturako elementuekin harremanak izateko modu berrien inguruko hausnarketa. “Oso interesgarria da horrela bizi den norbaitek idatzi delako, eta nabaria da naturarekiko duen hurbiltasuna”, zehaztu dute Trincherako kideek.




Caterva.

Una cartografía de la violencia sexual contra la infancia

Kristina Pozo Sevilla

Haurtzaroko sexu-abusuen inguruko kartografia. Kontakizun pertsonaletik abiatuta, poesia eta prosa nahasten ditu, narrazioa eta kokapen politikoa. Proposamenak errespetua eta beldurra ematen badu ere, testua ez da batere uherra eta iluna. “Benetan irakurri daiteke eta jende guztiari liburua hasteko gonbidapena luzatzen diogu”, aipatu dute argitaratzaileek.



Fin de cordada

Olga Blázquez Sánchez

Mendi-literatur gisa sailkatuagatik, lagunarteko harreman baten hausturari buruzko kontakizuna da. Elkarri hitzik egin gabe bi urte daromatzen bi lagun berriz jarri dira harremanetan, azkeneko aldiz elkarrekin eskalatu zutenean erabilitako soka itzultzeko. Aitzakia horrekin narrazioak mahai gainean jartzen ditu lagunarteko botere-harremanak, gaizki jokatzeko, gordetako mina, zaurgarritasuna... “Oso interesgarria iruditzen zaigu, edonor identifikatu daitekeelako bi aldeekin. Arratsalde batean irakurtzen da eta arrastoa uzten du”, borobildu dute Patasek eta Ivanek.





HAMAIKETAKO OSASUNTSUA

Elikadurak, gure ikasleek ondo ikasi dutenez, garrantzia handia du gure bizitzan. Honi esker osasuna mantentzeko behar ditugun mantenugaiak lortzen ditugu eta, bide batez, garapen fisikoa zein intelektuala modu egokian garatzen laguntzen digu.

Baina, guzti hau lortzeko, ezinbestekoa da bizitzako etapa guztien beharrak betetzea, eta umeenak eta nagusienak desberdinak direla kontuan hartzea.



Testua eta argazkiak: Deustuko Eskola

Eskolatze-etapan, elikadurak umeen garapenean eta errendimenduan (hobeto kontzentratzeko, energia izateko...) eragin handia dauka. Gainera, ezin dugu ahaztu eskoletan denbora luze pasatzen dutela.

Beraz, gu ohitura osasungarrien alde gaude eta proposamen bat egin dugu gure ikasleak gero eta osasuntsuago garatzeko.

Hasteko, eskolara etorri aurretik ondo gosaltzea gomendatzen dugu, kontuan hartuta, gure umeek hamaiketakoaren

ordura arte ez dutela ezer jango. Gosari aproposa, fruta, esnekiak eta zerealak izan daitezke.

Jarraian, guri dagokigunez, jantokiko menuan ezezik, hamaiketakoan ere, elikadura-ohitura onak sustatu nahi ditugu.

Horregatik, jolas-orduan ekartzen zuten elikagai motak aztertu ondoren, gure ikasleen ohiturak aldatzea eta hamaiketako osasuntsua ezartzea erabaki dugu. Hau da, pixkanaka pixkanaka familiak eta, batez ere, gure ikasleak osasuntsu

jatearen garrantziaz kontzientziatzea eta inplikatzeko gustatuko litzaiguke. Lehenik, aholku gisa eta, gaur egun, ohitura bihurtuz. Haur Hezkuntzan, asteazkena da frutaren eguna. Gelako zerrendari jarraituz, dagokion umeak nahi duen fruta ekartzen du guztien artean banatzeko: bananak, sagarrak, madariak...

Gainerako egunetan, ogia jaten dute. Korroan eserita elkarbanatzen dute. Zein goxo! Lehen Hezkuntzan, berriz, ikasle bakoitza bere hamaiketako ekartzeaz arduratzen da. Haien patioan lasai jaten dute lagunen artean eta behin amaituta energiarekin jolas-ten dute.

Eskolatik ere laguntzen dugu, alde batetik, irakasleok hamaiketakoekin ereduia izaten eta, bestetik, jolas-orduan sukaldeko atea irekitzen, ikasleei fruta edo ogia hartzeko aukera emanez.

Gozokiak, bolleria industrialak, azukredun zukua ... beharrean, gure patioan, gaur egun, fruta, fruitu lehorrak, jogurt naturalak, zereal opilak... ikusten dira.



Gaur egungo gure ikastetxeko ikasle direnak, etorkizunean, elikadura-ohitura hobekak izango dituztelakoan gaude.

Deustuko auzokideok, gonbidatuko zaituztegu gurekin batera hamaiketako osasuntsua egitera! ANIMA ZAITEZTE!



halderapeño
euska! kultur gunea


www.halderapeño.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



1925EKO URTARRILAREN 1A, GURE HISTORIA ALDATU ZEN EGUNA

Gutxienez bostehun urteko historia amatatu zen orain dela mendebete, Bilbok Deustu beretzat hartu zuenean. Gure herriko agiri idatzi zaharrenak 1450 urteko udal bilkura baten lekukotza dakar. 1925eko urtarrilaren 1ean diktadura arrotz batek erabaki zuen Deustu udalerria desagertu behar zela. Hala izan zen.



Testua: Hektor Ortega

1925eko urtarrilaren 1ean desagertu zen Deustu udalerrri gisa. Elizate zaharra, errepublika zaharra, “municipio”, udalerrri, bihurtu zuten, gainerako elizate guztiak bezala, Bizkaiko foruaren gaineratik Espainiako legedia ezarri zutenean, gerra bat (lehenengo karlistada) galdu eta gero. Bigarren gerra galdutakoan, foruak eurak deuseztatu zituzten, eta Bizkaiari bere subiranotasunaren arrasto batzuk (kontzertu ekonomikoa) besterik ez zitzaion geratu. Aurrerantzean, erabaki handiak Espainiak hartu behar zituen. Horietako bat izan zen 1924ko urriaren 28ko errege-dekretua, zeinaren bidez, Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadurak, Bilboren nahikariei men eginez, Deustu, Begoña eta Lutxana Bilboren esku laga zituen.

Hondamendia 1925eko urtarrilaren 1ean gauzatu zen. Egun hartan hartu zituen beretzat Bilbok alboherri biok eta Lutxana. Zelan egin zuen? Bilboko Noticiero Bilbaino egunkariko kronikari jarraituko diogu. Alderik aldeko izenburu batekin ireki zuen urtarrilaren 2ko bere azala kazeta horrek: “La invicta villa ha dado su tercer paso hacia el Abra”. Izenburu mamitsua, bai horixe. Lehenengo eta bat, hiribildua karlisten aurrean zelako garaitu gabea, alegia, foruen galera eragin zutenen aldean zegoen Bilbo hura. Bigarrenik, hirugarren urratsa zelako, aurreko biak 1870 (Abando eta Begoña) eta 1890 (Abando) urteetako anexoak izan zirelako. Eta, hirugarrenik, urrats horiek norabide argi batean zuzentzen zituen Bilbok: itsasoraino (Abraraino) heldu nahi zuen.

Anexioa gauzatu behar zuen tropela urtebarrri eguneko goizeko 9etan abiatu zen, Bilboko udaletxetik. Eta a zer nolako tropa! Hamazazpi autotan Lutxanara joan ziren Cesar Ballarín Bizkaiko gobernadore zibila (gorengo agintaria diktadurapeko Bizkaia hartan), Federico Moyúa alkatea, 40en bat udal kargudun (denek diktadurak izendatutakoak), udal funtzionario gorenak, Teofilo Guiard udal artxibozaina, txinelak, klarinjoleak, mazolariak eta txistulariak.

Autoetatik jaitsi eta Lutxanako zubiaren erdiraino oinez heldu zen Bilboko Udalaren segizioa. Han zain zeuden Erandioko alkatea eta herri hartako gainerako ordezkariak. Haiek ere diktadurak izendatutakoak ziren, baina Etxarri alkateak hantxe bertan berretsi zuen erandiotarren samina anexio prozesua ezbidetzkoa izan zelako. Bilboko ordezkariak garaileen kiroltasunez hartu zuten kritika.

Deustuko udaletxean

Lutxanako zubitik Deustura etorri zen bilbotarren segizioa. Goizeko hamaikak laurden gutxi ziren eta, kazetariak zehaztu zuenez, udaletxeko plaza “ia hutsik zegoen”. Han ez zegoen Bilboko alkateari ongi-etorririk emateko deustuarrik. Bai, ordea, txinelak, Deustukoak eta Bilbokoak, baita Espainiako poliziak ere, segurtasuna bermatzeko. Ez ziren, antza denez, deustuarrez fidatzen.

Fernando Goxeaskoetxea alkateordea, zinegotzi batzuekin, zain zegoen udaletxean. Batzar aretora sartu ziren eta mahai-buru Ballarín eseri zen, eskuinean Moyua eta ezkerrean Goxeas-

koetxea zituela. Ballarinek Deustuko udalaren aldeko berba sutsuak esan eta gero, aginte makila eman zion Moyuari. Orduan bilbotarrak hartu zuen hitza: “Doy a todos la seguridad de que los deustoarras serán para nosotros hermanos predilectos”. Ondoren Arrola deituradun deustuar anexiozale batek berba egin zuen eta, azkenik, Jesus Gaztañaga Deustuko udal idazkariak. Honek esan zuen Deustu arima eta bihotz defendatu zutela anexioaren aurka, baina, behin auzia burututa, aurrera begiratu behar zutela borroka hartan sortu ziren ika-mikak ahazturik.

Jarraian, Deustuko udaletxeko balkoian agertu ziren Bilboko eta Deustuko banderak. Klarinek jotzen zituzten bitartean, hiru bider makurtu zituzten eta beste horrenbestetan elkar gurutzatu, anaitasun keinu gisa. Orduan, Federico Moyúak hitz egin zuen balkoitik: “He aquí, queridos deustoarras, uno de los días que en la vida de los pueblos pueden llamarse grandes (...). Hubo lucha, sí, pero aplacada esta, incluidos todos bajo la denominación de bilbainos, han muerto todos los recelos y ha sonado la hora del cariño fraternal”.

Eta horrela hartu zuen Bilboko Udalak beretzat Deustu, goizeko hamaikak eta hamar zirela. Arrazoia zeukan Bilbo erdian plaza eliptikoa daukan Federico Moyuak: hura herrien bizitzan handitzat jo daitekeen eguna izan zen, baina tamalaren neurriagatik izan zen handia. Deustuko udalerria desagerrarazi zuten. Deustuko herriak, oster, bizirik iraungo du, deustuarrok nahi dugun bitartean.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



Testua: CEIP Deusto HLHI

Abenduaren 3an Euskararen nazioarteko eguna da, eta munduan zehar ospatzen da. Egun honetan munduko txoko guztietan ekintza asko aurrera eramaten dituzte hizkuntza honen erabilera bultzatu eta sustatzeko asmoz

Data hau oso garrantzitsua da Euskara gure lurrraren eta sustraien esentzia da, eta denok modu batera edo bestera, bihotzean daramagu. Gure ikastetxea multikulturala denez ikasleen artean ama hizkuntza ugari daude: gaztelania, arabiera, erumaniera, etabar, familien jatorriaren arabera. Egoera hau aberasgarria da guztiontzat gure kultura eta baloreak zabaltzeko eta partekatzeko aukera ezin hobea ematen digulako, bakoitzaren onena eskainiz.

Gu irakasleak garenez oso erronka handia dugu gure aurrean, ez bakarrik gure ikasleek Euskara “hitz egiten” dezaten lortzeko, baizik eta baita hizkuntza hau nahi izatera eta babestera irits daitezen lortzeko ere. Badakigu maite eta babesten ez dena desagertzeko joera duela. Honetan datza gure lana, eta hor jarri behar ditugu gure ahaleginak. Hau dela eta ikasturtean zehar gure ikastetxean hainbat ekintza antolatzen ditugu: bertsolaritza, Agate Deuna, Olentzeroren jai, Aste kulturala....

Horregatik abenduaren 3an gure ikastetxean Euskararen Eguna ospatu genuen eta egunean zehar irakasleek prestatutako ekintzetan gustora parte hartu genuen. Egun horretarako aukeratutako leloa zen “KONTU - KONTARI EGIN EUSKARARI”. Ospakizun honen helburua zen Euskararen garrantziaz jabetu eta hizkuntza honen erabilpenari bultzada eman gure ikasleen artean. Eguraldi nahiko lainotsua egin bazuen ere, honek ez zigun kendu geneuzkan ospakizun eta ondo pasatzeko gogoak. Eta jakina, oso ondo pasatu genuen!

Aurreko ostiraletik aurrera 9:00etan zikloek aukeratutako abestiak megafoniaz jarri ziren

ikasleen sarrera girotu eta animatzeko. Goizean zehar txandaka gure “KONTU - KONTARI EGIN EUSKARARI” hormairudia denon artean osatu genuen. Ikasle bakoitzak HHko 2 urtetik LHko 6. mailara arte aho bat bere izenarekin itsasi zuen Euskararen erabilera bultzatu eta indartzeko konpromiso eta isla gisa.

Jolastordua eta gero gimnasioan elkartu ginen. Aurten gurekin espazioa konpartitzen ari diren Deusto Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleak eta irakasleak gehitu ziren.



Guztionean artean hezkuntza-komunitate handi bat osatzen dugu, eta bai espazioak bai ekintza batzuk partekatzen ditugu, elkarbizitza eta elkarlanaren adibide ona izanik.

Gimnasioan umeek prestatutako abestiak eta ko-reografiak ikusi genituen: “Haurrak ikas zazue” (Haur Hezkuntza), “Gora Euskara” (1. zikloa), “Euskararen txantxangorria” (2. zikloa) eta “Euskaraz bizi nahi dut” (3. zikloa). Gero jarraian 6. mailakoek prestatutako bertsoak bota zituzten.

Goizeko ekitaldia amaitzeko guztiok batera “GUK EUSKARAZ” abestu genuen eta leloa: KONTU- KONTARI EGIN EUSKARARI” ozenki esan genuen.

Arratsaldean, guztiok antolatutako txokolatadaz gozatu ginen eta haur hezkuntzakoek egindako domina “Nik euskaraz bizi nahi dut” leloarekin etxera eramane zuten.

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK

BASQUE
LABEL
HARATEGIAK

EK



**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUETAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

BILBAO:

CARNICERÍA EDU - Gordoniz, 62 - Rekalde

CARNICERÍA FELIPE - Ciudadela z/g

CARNICERÍA TINO - Fica, 60 - Santutxu

berbetan

AINARA HELGUERAekin

INTERPRETAZIO IKASLEA ETA TIKTOKERRA

“Komunitatea sortzea eragin dezake”



Testua: Katalin Gaztelu
Argazkiak: Ecuador Etxea

e edukia euskaraz sortze horrek”



Nolatan hasi zinen TikTokarekin/ sare sozialekin?

TikTokarekin berrogeialdian hasi nintzen. Asperduragatik izan zela uste dut. Nik kontsumitzen ditudan bideoak ez dira gero egiten ditudanak, eta ikusten ez nuen hori egin nahi izan nuen. Belén Esteban parodiatzen zuen bideo bat ikusi nuen katalanez, eta neuk ere nire hizkuntza dudanez, hala egitea bururatu zitzaidan.

Nolako bideoak jorratzen dituzu?

Barre egiteko edo konplexuei umorez aurre egiteko bideoak egiten ditut. Hasi nintzenean autokonfiantzako bideoak egiten nituen eta orain esan dezaket entretzenimendua ere egiten dudala. Kritika konstruktiboak egiten ditut, “selfcare”... Denetarik esango nuke.

Esango zenuke lotura duela zinema eskolan ikasten hasi izanak eta bideoak sortzen hasteak?

Esan bezala, TikToka berrogeialdian hasi nintzen erabiltzen, baina interpretazioa betidanik barruan daramadan zerbait da. Beti egin izan ditut antzerkiak, Batxilergo eszenikoa egin nuen Ibarrekolandan... Tiktokaren eta interpretazioaren arteko nahastea izan daiteke agian.

Edukia euskaraz sortzeak zer eman dezake?

Sare sozialetan taldeak daude, eta euskal “influencerrak” garen aldetik, Euskal Herriko taldea osatzen dugu guk. Gai-nontzeko taldeengandik aparte eta isolatuta gaude sare sozialetan eta bizitzan oro har. Izan ere, publiko mugatua dugu eta bakoitzaren lanak fruituak ematea zailagoa izan daiteke.

....

Aldi berean, komunitatea sortzea eragin dezake edukia euskaraz sortze horrek. Adibidez, “zuretzako” traola jarritz, Euskal Herrian kokatuta dagoen edonori nire bideoa agertuko zaio TikTok-en sartzen bada. Partekatzen duzun hori hizkuntza berak batzen duen jende multzoa elkartzeko modu bat ere bada. Horrez gain, uste dut zure bideoekin lortu nahi duzunaren arabera izango dela zure edykiaren nondik norakoa aukeratzeko hautua.

“Abenduaren 3ko Tiktokaren harira, bideo bat agertu zitzaidan euskara 4 katuk erabiltzen dutela esaten zuena eta, ondorioz, ez litzatekela hizkuntza ofizial izan beharko”

berbetan

AINARA HELGUERArekin

▷ ▷ SAKONEAN

Zinema eskola bukatzean zein da zure plana?

Nire azken urtea da hau eta *casting*etarako pres-takuntzarekin hasiko gara laster. Badakit zaila izango dela eta badakit oso mundu ezegonkorra dela; batek daki noiz kontratatuko zaituzten...

Nire intentzioa uda ostean, irailean, Madrilera joa-tea da eta bertan saiatzea. Bertako eskola batean ikastea gustatuko litzaidak. Izan ere mundu hau "titulitis"aren mundua da eta horrek lagundu egingo didala uste dut.



Zein harreman zenuen euskararekin edu-kia euskaraz sortzen hasi baino lehen? Ondoren? Euskaraz sortzeak lagundu zai-tu?

Nire egunerokotasunean ez dut euska-ra erabiltzen eta, ondorioz, asko galdu dut. Edukia euskaraz sortzen hasteak hizkuntza berreskuratzen lagundu dit. Bost urte nerematan euskara egunero edo normal erabili gabe eta, nahiz eta dena ulertu, hitz egiteko orduan jariora galdu dudala nabaritzen dut; Trabatu egiten naiz, hitzak falta zaizkit... Azke-naldian, egunero euskaraz zertxobait hitz egiten dut. Lagunekin, adibidez, euskara berreskuratu dudala esan de-zaket.

Hemendik aurrera euskarazko eduki ge-hiago sortuko duzu?

Bai, saiatuko naiz. Gainera gustoko dut.

Zerk bihurtzen du bideo bat biral?

Uste dut probokaziotik datorren zerbai-tek egin dezakeela euskarazko bideo bat biral. Biral egingo zaizu nolabait "kaka" botako dizutelako, ez zurekin ados daudelako. Emakume batek gor-dofobiaz hitz egiten badu, eta gainera euskaraz, oso zaila izango da birala iza-tea. Gaztelaniaz gerta daiteke, ordea.





Nire bideorik biralena, ez dakit zenbat milioi erreprodukzio zein “megusta” dituena, erdaraz dago. Bideo hartan nire kuleroak erakutsi nituen zikin ez zeudela adierazteko, koloregabetuak baizik. Baginaren pH-a azidoa dela eta, azidotasun horrek kuleroak koloregabetzen dituela azaldu nuen, eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Hori euskaraz egin banu, ezinezkoa izango litzateke hainbeste jenderengana iristea. Pena handia da.

Zer behar du euskarazko edukiak beste hizkuntzetako edukiak beste oihartzun izateko?

Ezinezkoa dela uste dut. Lehen aipatu dugun probokazio hori behar da, eremu honetan gutxiago garelako euskaraz hitz egiten dugunok.

Ikusi dugunez, 200.000 jarraitzaile izatetik 82.000 izatera igaro zara edukia hain maiz igotzeari utzi diozulako.

Bai. Behin bideoak igotzeari utzi nion ideiak bukatu zitzaizkidalako. Sare sozialetan jarraitzaileek bat-batean gora egiten duten bezala, behera egiten dute. Orain berriro hasi naiz bideoak igotzen, baina helburu edo xede finkori ez dudanez, gogoia dudanean igotzen dut edukia. Ez dut inolako obligaziorik sentitu nahi. Izan ere, obligazio horrek harrotzen du komunikatzeko eta bideoak sortzeo gustua edo grina. Egia da euskarazko bideoekin berriro gora egiten hasi naizela eta gogoia dudala halaxe jarraitzeko.

Nola kudeatzen dituzu “hater” deritzen horien mezuak?

Terapiara noa eta landu izan dut “hate”aren kontu hau, baina egia da, astakeria da. Inondik inora ezagutzen ez duzun norbaiti pantaila baten atzetik edozer esateak ez du zentzurik, erokeria bat da.

....

Mezu politak ere jaso ditut. Behin 13 urte inguruko neska batek idatzi zidan klasean bullyinga egiten ziotelako ile asko izateagatik. Nire bideoekin topo egin zuen eta indar handia eman zion egoerari aurre egiteko, gurasoei laguntza eskatzeko, bere burua maitatzen hasteko...



KULTURA

Euskararen Etxeak Europako Kontseiluaren 2025eko Museoa saria irabazi du

Euskararen Etxea Europako kontseiluaren 2025eko Museoen Sariaren irabazle aukeratu du Europako Kontseiluko Parlamentu Batzarreko Kultura Batzordeak.

Euskararen Etxea Bilboko San Ignazio auzoan dago, eta 2004an sortu zen Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bilboko Udaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren ondorioz. Egun, Azkue Fundazioak kudeatzen du.

Euskararen Etxeak erreferentzia izan nahi du euskal eragileentzat eta euskal jendartearentzat. Horretarako, hainbat zerbitzu eta bitarteko eskaintzen ditu.

URTEURRENAK

2025eko jaien egutegiaren aurkezpena egin dute Bilboko Konpartsek

Bilboko 12 istorio izkutu hurbiletik eza-gutzeko aukera eskaini zuten Bilboko Konpartsetako kideek hilak 18, BIRA Kulturgunean egindako aurkezpenean. Istorio horien inguruan gehiago jakiteko hainbat aditu igo ziren holtzara. Horien artean, Aitor Argote begoñarra eta Aitziber Olabarrieta deustuarra Begoñaren eta Deusturen anexoaren inguruko istorioaz aritu ziren eta ekitaldiari amaiera emateko, Pedro Zuberogoiatiak, Bilboko XX.mendearen hasierako euskarazko ikastegi aitzindariak ekarri zituen gogora bere istorioaren bitartez.

KULTURA

Markel Montañok San inazioko gazteak liburua argitaratu du

Markel Montañok Lekuek Bilboko Udal-hilerriko faunaren inguruko liburua argitaratu du Bilbao Zerbitzuaren bidez. San Inazioko biologo gaztea da Markel eta liburua gaztelaniaz eta euskaraz publikatu dute.

Bilboko udal-hilerria 1902ko apirilaren 27an inauguratu zen eta Bilboko Kultura-ondarearen zati garrantzitsu bat da.

Bilboko Udalak 2010ean Bilbao Zerbitzuak erakundea sortu zuen hilerrien eta merkatuenganako udal-eskumena kudeatzeko.











KULTURA

Imanol Etxebarria *Hauts zaharren boterea Arriskuak eta mehatxuak* liburua aurkeztu du Durangoko Azokan

Ibaizabal argitaletxearen eskutik argitaratu du liburua Imanol Etxebarria eta honela dio sinopsiak; Amaia unibertsitateko lehen mailako ikaslea da. Deustun ibiltzen da bere ikaskide eta lagunekin, bizimodu arrunta eginez. Halako batean, bere baitan eta bere inguruan egoera arraroak sumatzen hasiko da. Bizitza erabat aldatuko da. Azkenean, familiak isilean gordetako sekretuak agerian geratuko dira eta benetako errealitatea ezagutuko du.





Itsasadarreko Hondartzak eta Erriberako errepidea tranbiarekin.

Urtea: 1927

Txema Luzuriaga

Deustuk ez du anexioa nahi

Deustuko Udalak, Bilbok anexio espedientearen izapidetzen jarraitzearen inguruan jasotako berrien aurrean, gai honi dagokionez, Aldundiaren ezezko botoa eskatzea erabaki zuen, eta bere protesta orokorra adierazi zuen aurrera eramandako saiakera ororen aurrean, anexioaren bidez herriaren nortasunarekin amaitzeko asmoz.

Gauzak horrela, Udalbatzak batzorde bat sortzea erabaki zuen, Aldundira joan zedin aipatu dugun komunikatua eta honekin batera zetozen dokumentuak emateko.

Anexioari buruzko txosten berri bat egiteko Aldundiari zuzendutako eskaera ezagututa, Deustuko Elizateko udalbatzak aho batez erabaki zuen udal erakunde independente gisa jarraitzeko nahi.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

blb:

BILBOTARRON
ALDIZKARIA

BLB KOMUNIKAZIO KOOP. ELK.
Ramon y Cajal 42, behea
48014, Deustua
admnrstr.blb@gmail.com | 944471042



**ATXURI
TABERNA**

**Luzarra 1
Deustu**

946 75 40 17

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



Iragar zaitez

Prest!-en

tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com



**Alonso
Pertsianak**

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

**Optica
Avenida**

Agirre Lehendakaria, 147 Tfnoa:
SAN INAZIO **94 475 11 24**

**Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda**
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

**Eintoreria
La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua

**Probatu
herrizki.eus**

ANDROID APP
Google play

Apple App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu
aek ■ euskaltea**

Matrikula zaitez! **aek**

Nailan
Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO
HORTZ KLINIKA**

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Bitxidenda

**Sabin
Erlojudenda**

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS**

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

**PADI
OSAKIDETZA**

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Zer egingo duzu Gabonetako oporretan?



Leire Deustu

Gabonetan familiarekin eta lagunekin egongo naiz, beti bezala. Hala ere, urte honetan lanera joan beharko naiz beraz ez dira pasaden urteko gabonak bezalakoak izango baina behintzat disfrutatzen ahalegingudo naiz.



Oihane Deustu

Aurtengo Gabonetan aspaldi ikusten ez ditudan lagunekin elkartuko naiz. Urteari amaiera emateko, gabonzaharrean lagunekin mendira joaten naiz, familiarekin afaltzen dut eta gauean juergan irtetzen naiz. Santoto bezalako jaiak dira Gabonetan gehien gustatzen zaidana, baina noski, eguraldi ona egiten duenean.



Ane Deustu

Aurtengo Gabonetan lan egin beharko dut, baina daukadan denbora librearekin eta lagunekin egoteko aprobetxatuko dut. Noski, atsedean ere hartuko dut, eta data hauetan faltatu ezin den janariarekin disfrutatuko dut. Hori da gehien gustatzen zaidana.



Xabier Deustu

Aurtengo Gabonetan familiarekin eta lagunekin egotea da nire idea nagusia. Txikia nintzenean ilusio handiarekin hartzen nituen baina gaur egun ez da sentsazio berdina. Gehien gustatzen zaidan gauza familia guztiarekin egotea da.



Iker Uribarri

Nik berez ez ditut Gabonak ospatzen, ez dudalako Jesusen jaiotza oroimtentzen. Baina bai ospatzen dudala Urte Amaiera, eta hori gogoekin hartu ohi dut. Maite dudan jendearekin urteari amaiera berezia ematea gustatzen zait.



Gorka Deustu

Betikolez, Gabonetako egun seinalatuak familia eta lagunekin batera gozatuko ditut. Txikitatik gozatu dut asko Gabonetaz, data hauetan sentitzen dudana poztasun eta maitasuna errepikaezina dela esango nuke. Gehien gustatzen zaidana maite dudan jendearekin elkartzea da, baina aldi berean, horrek ere txikitako oroimen asko dakarzkiz burura, gaur egun ez dauden pertsona batzuk txikitik bazeudelako.



harkua bete herria

>> KULTURA

EUSKARAZ BARRE EGITERIK DAGO?

Testua: Itxaso Sainz

Aurreko batean gosaltzen nengoela, sareko berrie-tan, honako albistea irakurri nuen: “Barre egiteak bizitza luzatzen du”. Hala, horren inguruan hasi nintzaion buruari ekiten: egunerokotasunean maiz egiten dut barre? Gehiago egin beharko nuke? Zer nolako kontuek eragiten ditdate barrea? Artikuluak zioenez, eta Espainiako Neurologia Elkartearekin bat, egunero hainbatetan barre egiteak nahiz pertsona irribarretsua izateak bizitza lau urte eta erdi luzatu dezake. Tamalez, ikerketek ez zuten zehazten zenbatean behin hasten zen onuragarria izaten barre egitea; areago, ez ziguten inolako formularik ematen barrez lehertzeko.

Hori horrela, jarraitu nintzaion buruari eragiten eta geurera ekarri nahi izan nituen gogoeta horiek guztiak. Bai, egun euskaldunok maila batean edo beste batean elebidun gara (salbuespenak salbuespen, jakina). Haatik, zein hizkuntzatan egiten edota kontsumitzen dugu umorea? Nik uste sortu zaidan kezka ez dela kontu isolatua; izan ere, begi bistakoa da azken boladan umorezko saioak biderkatu direla.

Are gehiago, denboran atzera eginez gero, denok gogoratuko dugu “Wazemank” umorezko telebista saioa, ezta? Nork ahaztuko lituzke Arregitarrak familia xelebrea edota gure atsua kuxkuxeroak? Esan nezake, eta ozen gainera, emankizun horixe askorentzat giltzarri izan zela euskal umoreari lehenengo bidez hurreratzeko.

Zoritxarrez, saioa ez zegoen euskaldun guztioi zuzenduta, horietako askok nekez ulertzen baitzuten. Azken batean, pertsonaiak Gipuzkoa aldeko hizkeretan mintzatzen ziren, lagunarteko hizkera itxian eta gehienbat hikaz.



Horrek euskaldunon ehuneko handi bat jokoz kanpo uzten zuen: euskaraz ikasten ari zirenak, euskara batuan zihardutenak nahiz bestelako hizkeretan aritzen ziren euskaldun ugari.

Beraz, 2000. hamarkadan, oraindik ere, euskal umoreak euskaldun gutxi batzuen esku zirauen. Hori bai, urteak aurrera egin ahala, eta euskaldun kopuruak gora egin duen heinean, euskal umorearen eskaintza ere handitu da. Aipatzekoa da 2020-2021 urteen bitartean Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak aurkeztutako “Barre Libre” bakarriketa saioa. Oraingoan, argi utzi ziguten euskaraz barregarri izan gaitzkeela, euskara batuan zein lurralde ezberdinetako hizkeretan; euskaraz ere umore duina egin daitezkeela.

Egun, aurreko biak jada telebistan eman ez arren, “Primeran” plataforman nahieran ikus ditzakegu, bestelako umorezko hainbat edukirekin batera. Eta, noski, ezin ahaztu herriz herri dabilztan umoregileak. Ez ote gara euskal umorearen aroan sartzen ari? Baliteke baietz borobila gehiegizkoa izatea; dena den, guztiz harro esan dezaket euskaraz ere barrez lehertu naitezkeela eta gozoz gainera.



http:// **sarekada**

Abenduaren 12an, Txema Luzuriagak, Erriberako Auzo Elkartearen eskutik, "Erriberako iraganetik argazki bidaia. Anexiotik 100 urte" hitzaldia eta argazki zaharren erakusketa antolatu zuen Bizinahi auzogunean. Ekitaldi hori Bilboko Udalak Primo de Rivera diktadorearen gobernuaren lege-dekretu bidez Deustuko Errepublikan anexionatu zueneko urteurrenaren barruan kokatzen da. Inposizio horren efemeridea gogoratu eta auzo hori lehen herri izan zela gogora ekarri ahal izan zuten Erriberako bizilagunek.

Atzo, gaur eta beti: Erribera bizirik!.




Viaje fotográfico por el pasado de la Ribera. 100 años desde la anexión.

TXEMA LUZURIAGA FERNÁNDEZ

Erriberako iraganetik argazki bidaia. Anexiotik 100 urte.

ABENDUAK 12
19:00 BIZINAHÍ



NOIZBAIT KASUALITATE IZAN DADIN

“Bertso sistemak berak emakumeon arteko lehia eta inbidia sustatzen dituela sentitu nuen nire gorputzean”. Honako adierazpen hau jasotzen du, beste askoren artean, Uxue Alberdiren Kontrako eztarritik: emakume bertsolarien testigantzak (2019, Susa) liburuak.

Testua eta argazkiak: Maider Silva

2019an kaleratutako liburuak hamabost bertsolarien testigantzak biltzen ditu, baina helburua ez da, berak dioen moduan, bertsogintzaren teknika finduez, koplen kalitateaz edo zortzikoen flow-az mintzatzea, baizik eta ahots publikoa duten emakumeen basterreko mugimenduari buruzko gogoeta egitea, bertsolaritzaren esparrutik harago doana.

“Emakume bertsolariek, praktikan, onartuta daukate elkarren arteko ordezkagarritasuna”, hala dio liburuan Alberdik. Izan ere, historian zehar gutxitan kantatu dute elkarrekin, elkarren ordezkari izan baitira. Baina, horren aurrean, sistemak eragindako lehiakortasunari aurre egiteko mekanismo kolektiboak landu dituzte emakume bertsolariek: Ahalduntze Bertso Eskola, Zilekoa, Ez da kasualitatea saioak... Banakako lehia meritokratikotik aparte, testua eta testuingurua lantzeko tresna kolektiboak dira. Festa, konplizitatea, lasaitasuna, gozamina, segurtasuna, taldeatasuna, ausardia, maitasuna, alternatiba, gorputzasuna... hori dena aurkitzen dute emakume emakume bertsolari asko gune horietan.

Ez da kasualitatea bertso-saio musikatua da. Hiru edo lau bertsolarirekin batera bi musikari aritu ohi dira saio hauetan. Duela hamar urte inguru sortu ziren eta, izenak dioten moduan, “ez da kasualitatea” lau bertsolariak eta gai-jartzailea emakumezkoak izatea. Izan ere, oraindik, zoritxarrez, gizonetzko osaturiko saioak baino ez baitira kasualitatez izaten. Beraz, saioen helburua argi adierazi du Maite Sara-

sola bertsolari deustuarrak: “batez ere emakumeek plazan sare bat sortzea, elkartzea eta guk elkarrekin kantatzeko espazio segurua batzuk sortzea”. Saio hauetan, saio normaletan kantatzen ez diren gaiak aipatzen dira, egiten ez diren ariketak... Orokorrean emakumeentzako oso espazio seguruak ere badirela azpimarratu du: “Konplizitatea sortzen da kantuki-deen artean”. Hein handia batean libre sentitzen dira hanka sartzeko eta nahi dutenari buruz abes- teko, nahi duten eran eta estiloan. Maite Sarasola nabarmendu du feminismoak zeharkatzen duela proiektu hau eta emakume bertsolari askorentzat deskubrimendua eta salbazioa izan dela.

Beraz, izenak dioten moduan, ez da kasualitatea bertsolari guztiak emakume izatea, horregatik abenduaren 9an aritu ziren bertsotan Miren Amuriza, Maite Sarasola eta Aissa Intxausti Deustuko Udalgia. Libe Goenaga eta Aner Euskitze izan ziren oholtzako musikariak eta Idoia Anzorandia gai-jartzailea.

“Astelehen iluntze baten plan mundiala da” eta “ez dago aste bat hasteko modu hoberik”, adierazpenek ondo laburbiltzen dute bertso-saioaren hasiera. Ohikoa den bezala, agurrarekin hasi ziren, hasiera hitza abiapuntutzat hartuta.

Bertso-saioak aurrera egin zuen eta hainbat aldarrikapenek, nola ez, bere lekutxo hartu zuten momenturen batean. Euskararen Eguna protagonistetako bat izan zen gaien artean, eta horretaz





Maite Sarasola eta Miren Amuriza aritu ziren solasean. Euskarak hirian ba ote duen lekurik galdetu zioten euren buruari. Bi jarrera ezberdin izan behar dituzten bertsolariek: ezkorra eta baikorra. Kezka, motibazio-falta, katearen indarra... ideia dezente agertu zituzten elkarri

erasotzailea. Hori dela eta, hortzak zorroztu beharra dagoela aldarrikatu dute bertsolariek: “beldurra izan dezaten, beldurra tresna izan dadila”. Horrelako gaietan oilo-ipurdia jartzea ez da harritzekoa, baina irribarreak ere ikus zitezkeen aretoan beste gai batzuen inguruan



eragiteko. Hurrengo gaia sare sozialak eta erasoak izan ziren, azkenaldian bor-bor dabilen gaia, hain zuzen ere. Sare sozialak emakumeek jasotako erasoak salatzekeo tresna bihurtu dira azken hilabetean, eta kasu askotan erasotzailea errepikatu egin da. Argi geratu da denetarik dagoela: arkitektoak, ginekologoak, tatuatzaileak, musikariak... Azken batean gizon arrunta da

ibili zirenean: ligoteoaren mundua, Mari Domingiren gutunak, nerabezarotik izandako aldaketak, familiarterko eztabaida ohikoak... Aissa Intxaustik bere ikasturteko agenda ere plazaratu zuen hilabetez hilabete, bertsolari emakume baten ikuspuntutik. Bukaeran, betiko lez, agurrak izan ziren bertsoaioa borobildu zutenak. Astelehen euritsua izanda ere, gustura ibili ziren bertsolariak eta




entzuleak. Giro ederra sortu zen Deustuko Udal-
tegiko areto nagusian musikaz lagunduriko hiru
emakumeen bertsoekin.

Aipagarria da Amurizaren agur-bertsoaren azken
puntua: “kantuan segitu kolpez ireki atea, noizbait
hau benetan izan dadin kasualitatea”. Hori baita
helburua, urteko edozein egunetan, eta pentsatu
gabe ere, kasualitatez emakumeak bertsoan ibiltzea
oholtza gainean.

Baina bitartean intentzio osoz antolatzen jarraituko
dituzte Ez da kasualitatea saioak, eta Maite Sarasol-

ak espero du etorkizunean asko egitea: “gainera,
txapelketetan edo plaza normaletan egoten ez den
testuinguru bat egoten da, edozein bertso saio ez
delako espazio seguru bat bertsoari entzatzat”.

Aipatu du, adibidez, txapelketetan epaitzen dituztela,
eta saio hauek libreago abesteko aukera ematen
dietela. “Oso garrantzitsua da guretzako horrelako
espazioak egotea, non epaituak izango ez garen eta
guk erabakiko dugun non, nola, zergatik eta zeri
buruz abestu”, gaineratu du Sarasolak.



BILBO

EUSKARAREN

HIRIBURUA

1876-2024


ERAKUSKETA

IBILTARIA



BILBOKO UDALTEGIETAN

- URRIA | 15-30 | BEGOÑA
- AZAROA | 4-14 | SAN INAZIO - IBARREKOLANDA
- AZAROA | 18-22 | ERREKALDE
- AZAROA | 26-5 | LA BOLSA
- ABENDUA | 15-30 | CASTAÑOS
- URTARRILA | 3-16 | ABANDO
- URTARRILA | 20-30 | OTXARKOAGA
- OTSAILA | 3-14 | BASURTO



pintxo goxoenak zure etxean!

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako frontoiaeren atzean

Zatoz gure eskaintza berria probatzera!



Astellehena - Asteartea - Asteaskena
09:30 - 13:00 | 18:00 - 22:00

Osteguna - Ostirala
09:30 - 13:00 | 18:00 - 01:00

Larunbata
18:00 - 22:00

@deustukoherritaberna

Ramon y Cajal 29 - DEUSTU

ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Presta?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JON INTXAURRAGA

Irakaslea

2025EAN ARRETAZ ETA PATXADAZ

Gorka Urbizuren fana naiz, eta bere bakarkako lana gustatu zait. Eta hori beste, haren mezua: "Hau patxadaz egindako diskoa da eta, beharbada, patxadaz entzutekoa ere bai" (Argia, 2857). Izan ere, noiztik ez dugu disko bat patxadaz entzuten? Noiztik ez dugu pelikula bat osorik ikusten telefonoari begiratu gabe?

Gaur egun, multiatlaz funtzionatzen dugu, eta ez gara gai gauza bat bakarrik egiteko. Horrek eragina du gure kultur jardunean. Ziur zutabe hau irakurtzen duzun bitartean, musika izango duzula lagun, eta mugikorretik bazaude, hamaika jakinarazpen. Eta ez badut zure arreta berehala mantentzen, beste leiho batera jauzi egingo duzu; edozein aplikaziotara.

Presaka jarduten dugu. Obrak kontsumitzen ditugu, bata bestearen atzetik; antsiar irentsi, pilatu edota baztertu. Pelikula bat bukatu eta beste gauza batera jartzen gara, utzi digun sententzia gozatu gabe. Liburuak apur bat aspertzen bagaitu, apalera itzuliko da, eta musikarekin zer esan, noiztik ez diogu kanta bati arreta osoa eskaini?

Estimuluak behar ditugu, etengabe, bata bestearen atzean, abiada bizian; eta kulturak patxada eta arreta, ordea. Gabonetan gaude, urte bukaeran, eta urte berriko asmoak aipatzeko garaia heldu da. Dagoeneko gimnasia noanez, nirea hau da: multiatza albo batera uztea. Koaderno bat ere erosiko dut ideiak apuntatzeko, eta, auskalo, agian baten bat orriotara helduko da.

Bien bitartean, ondo ibili era urte berri on!

12 hile pasatu dira

Doinua: : Haizea dator iparraldetik



MIKEL AIARTZAGUENA AGIRREBEITIA

Elorri bertso-eskolako kidea

12 hile pasatu dira
Abendua iritsi da
Espero dena urten izana
Gura zenuten neurria
Proiektu batzuk bota ostean
Zerrendan azken tokira
Ta berri batzuk sortuko ziren
Bizitza_hori da ta tira
Lurrak jarraitu dezala dantzan
Eguzkian gira-bira
Ate bat ixten den bakoitzean
Berriak zabaltzen dira

Crossfitean eman batek izen
Ta besteak pistina nahi
Besteren batek etxe berria
Kozina ta bi komun guay
Agian batek lana utzi ta
Betiko_opor betiko jai
Eta baten bat, ez zen izango
Karrera_ateratzeko gai
Baina datorren urtea berriz
Hartu ametsetan alai
Betetzen diren horietaz poztu
Ta besteengatik ere ba

GURE
GARIA

GURE
OGIA

ORAIN
OGI
INTEGRALA
ere bai

EUSKAL
OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA

ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

BILBAO

BIZKARRA - Julian Gaiarre Hiribidea, 28

BIZKARRA - La Cruz, 8

BIZKARRA - Licenciado Poza, 12

LAVIN OKINDEGIA - Rodríguez Arias, 55

GÜREPOKE - Pilota, 1

 **hazi**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA



Gure ikasleen ahotan

“Etorkizunean eragin soziala izango duten proiektuak garatu nahiko nituzke”



**LUCÍA
PASADAS**

Murgia (Araba)

Gradua: LEINN 2. maila

Team Company: NITTON

Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzan) gradua ikastea?

Batxilergoa arkitektura ikasteko asmoz hasi nuen, baina teknologia ikasgaiak ez ninduen konbentzitu. Enpresa Ekonomiara aldatu nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan. Bertan konturatu nintzen enpresa-mundua gustuko nuela. Betidanik praktiken bidez ikasi izan dut hobeto eta, horregatik, LEINN zen nire tokia.

Nola ari da izaten LEINNen bizitako esperientzia?

LEINN esperientzia gogorra da, baina izugarri gustatzen ari zait. Proiektuak aurrera ateratzen direnean, oso pozgarria da; hala ere, ez dira beti nahi bezala iritetzen, eta horrek frustrazioa ere ekar dezake. LEINN ekintzailetza-ikasketa bada ere, garapen pertsonalerako zein autokudeaketarako ikasketa-prozesua da batez ere. Ezaugarri hori ez da gradu gehienetan topatzen eta niri funtsezko iruditzen zait, bizitza profesional eta pertsonalari begira.

Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitatetik?

Sortzen dugun komunitatea asko gustatzen zait. Askatasunez adierazteko aukera daukagu denok.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan, nola egiten da hori?

Bai, lehenengo pausoa da. Prozesua konplexua da, baina zirrargarria, eta ilusio handiz ekiten diogu.

Nola da taldean lan egitea?

LEINNeko alderdirik zailena edo konplexuena dela esango nuke. Taldeko kideen kudeaketa ez da erraza; oso desberdinak gara eta elkarrekin lan egiten ikasi behar dugu. Denborarekin, lagunak egiten gara, eta horrek zaildu egiten du alde profesionala eta pertsonala bereiztea.

Ze proiektutan ari zarete lanean LEINNen barne?

Sektore ezberdinetako proiektuetan lan egiten ari gara: kirol-sektorean, ehungintzan edota ingurumenaren aldeko proiektuetan, adibidez. Hasi-ran, inbertsio handirik behar ez duten proiektu sinpleak egiten ditugu, hala nola txapelketak eta azoka txikiak.

Zer nolakoa izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?

LEINNeko bidaiak burbuila baten barruan egotea moduko esperientziak dira. Iaz Berlinen egon ginen, eta otsailean New Yorkera goaz. Ikaskuntzarako esperientzia intentsuak dira, bai maila profesionalen bai pertsonalean ere. Hilabete luzez beste taldekideekin batera bizi zara, beste herrialde batean proiektuak garatzen dituzu eta kultura desberdin batean murgiltzen zara.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Gradua hasi nuen helburu berarekin jarraitu nahi dut. Pixkanaka pixkanaka enpresa-kudeaketan gero eta gehiago sartzen ari naiz, eta eragin soziala izango duen proiektu bat garatu nahiko nuke.